

KONTROL MOZIOA

HAUR ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO HIRIKO EMANALDIETAN ETA HAI EK IGARTZEN DITUZTEN KARTELETAN EUSKARAREN ERABILPENA NORMALIZATZEKO ARAUAK BERMATZEN EZ DIRELA ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017eko apirilaren 10ean Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailaren 4tik 12ra bitartean, dinosauroen inguruko erakusketa egin zen Donostia Arena udal ekipamenduan. Haren publizitatea hiri osoan ikusi genuen: baimendutako tokietan zein baimenik gabeko espazio publikoetan. Iragartzeko kartelak erdara hutsez zeuden, eta bi hizkuntzatan zeudenetan euskararen erabilera eskasa zen, eta mezua ulertzea zailtzen zuten akats ortografiko larriez. Hori nahikoa ez, Donostia Arena udal ekipamenduan egindako erakusketako azalpen guztiak ere erdara hutsean zeuden.

Berriro ere, martxoaren 3tik 12ra, Circo Italiano izan zen bisitan Donostian eta bere zabalkunderako erabilitako mezu guztiak gaztelera hutsean zeuden; Koldo Mitxelena ondoan jarritako takilan, adibidez.

Jarraian ematen ari diren arau hausteen aurrean eta horrek bereziki, hiriko haur eta gazteen euskararen erabileran sortzen ari diren kalteaz kezkatuturik, arauak haustera iritsi aurretik, hizkuntz erabilerarako arauak bermatu eta jarduera guztiak normaltasunez baimendu daitezkeela uste dugu.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, euskararen erabilera normalizatzeko bidean aurrera-urratsak emateari begira, baieztar dezala, baimenak eman aurretik, hiriko hizkuntza irizpideen betekizun egokia egin dadin neurriak hartzen direla espazio publikoetan egindako ekitaldietan, bereziki gazteei zein haurrei zuzendutakoetan.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, euskararen erabilera normalizatzeko bidean aurrera-urratsak emateari begira, 2017an egin beharreko “Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 6. Plangintza-aldia” prestatzerakoan, protokoloak edo koordinazio tresnak diseina ditzala, bereziki gazteei zein haurrei zuzentzen zaizkien jarduerak tartean direnean, gaur egun Udalak indarrean dituen arau eta jarraibideak betetzen direla ziurtatze aldera.

Donostian, 2017ko apirilaren 12ean

Naiara Sampedro Perez
EHBilduko Zinegotzia